

**2023ko EDIZIOA**  
Azaroaren 10a, ostirala  
Ikastetxeen eguna  
Biarritzeko Irati gelan

## Tailer pedagogikoak eta etxaldeko lanen erakusketak

*Sartzea urririk haurrentzat eta laguntzaileentzat.  
Bertan piknikatzeko lekua.*

Egun on,

LURRAMA laborantza herrikoiaren saloinak, bere erakusketa eta tailer pedagogikoetara gomitatzen zaitu 2023ko **azaroaren 10ean, ostirala, 9.30-tik 16.00-ak arte**.

Aurten, 14 tailer pedagogiko eta ludiko proposatzen dizkizugu.

Tailerretan parte hartzeko zure izena eman beharko duzu, **gehienik 15 hurrez osatutako taldeak** eginez. **15 haur baino gehiagoko taldeen izen hartzea ez dugu konduktan hartzen ahalko. Beraz ez ahantz taldea 2-tan zatitzea hala behar izanez gero.**

Haur talde bakoitza zuek izendatu **heldu 1en ardurapean izanen da (erakasle edo guraso)**.

Ohartuko zira animazio guziak 2. eta 3. zikloko haurreri zuzenduak direla (CPTik - CM2ra).


Talde bakotx, 4 xede egiten ahal dituzu. Baina kasu, zure xede guziak ez ditugu gauzatzen ahalko... Azken erabakia telefonoz adostuko duzu Lurramako animatzaile batekin (gelditzen diren posibilitateen arabera). Talde bakotxak gehienez 2 tailerretan parte hartzen ahalko du. Jakin ezazu ahal dugun guzia eginen dugula deneri plazer egiteko !

Tailerrek 45 minuta iraunen dute, animazioa bera oren erdi batekoa izanen delarik eta animatzaileek **gehienez 15 haur** beren gain hartuko dituzte, tailer bakotx.

Oroitu ere, tailerrez gain, etxaldeko lanetako erakusketetan libreki parte hartzen ahalko duzula (haur kopurua ez mugatua). Eguneko egitaraua, 7. orrian ikus dezakezu.

**Izena emaitako idekitze eguna : 2023ko urriaren 2a, astelehena**

**Izena emaitako azken epea : 2023ko urriaren 5a, osteguna**



**2023ko EDIZIOA**  
Azaroaren 10a, ostirala  
Ikastetxeen eguna  
Biarritzeko Irati gelan

→ **Nola izena eman ?**

4. orriko izen emaite fitxa bete eta **mailez** gibelera itzuliz epeetan, helbide honetara :  
**maider@ehlgbai.org**

**Garrantzitsua** : Ikastetxe bateko izen emaite guziak **elgarrekin igortzea** galdegina zaizu.

Animazioak xeheki aurkeztuak zauzkizu 5. eta 6. orrietan. Horrek zure hautua errestuko du.

Kabalen xokoko erakusketen egitaraua 7. orrian ikusgai !

Izen emaite baldintzak 3. orrian dituzu.

→ **Izen emaiteen onarpena**

Izen emaite bakotxa telefonoz adostua izanen da. Ondotik, mezu elektronikoko baten bidez, zure bisitaren egitaraua bidalia izanen zaizu.

**Oharra** : Lurraraman proposatu tailer pedagogikoek beti eta arrakasta gehiago dute. Hori da zuen interesaren marka eta horregatik bihotzez eskertzen zaituztegu. Arrakastak beste ondorio bat du : ahal dugun guzia eginez ere, ezin ditugu xede guziak gauzatu eta maleruski, horrek frustrazioa sortzen du. Beraz aurten ere erabaki dugu izenak hartzerakoan, **2022an animaziorik gabe egon diren ikastetxeeri lehentasuna ematea, ondotik Lurrarama sekulan etorri ez diren ikastetxeeri eta azkenik beste galde guziak. Katgoria bakotxean, galdeak errezebitu orden kronologikoan tratatuak izanen dira.**

Hala beharrez, xehetasun gehiagoren emaitako prest gaude. Elgar ikusteko plazerra ukanen dugula espero dugulakoan, laster arte !

Adeitasunez.

Lurramako haurren xokoaren izenean

Maidar Larrieu eta Maritxu Inçagaray Haiçaguerre



2023ko EDIZIOA  
Azaroaren 10a, ostirala  
Ikastetxeen eguna  
Biarritzeko Irati gelan

## LURRAMAKO TAILER PEDAGOGIKOETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

*Dokumentu honetan zehaztu baldintzak irakurtzea eta errespetatzeaz eskertzen zaituztegu*

- 1/ Lurramako tailer pedagogikoak Iparraldeko ikastetxeeri zabalduak dira : ikastolak, eskola publiko eta pribatuak.
- 2/ Tailer bakotzak **gehienez 15 hurreko taldeak** errezebituko ditu aldika.
- 3/ Haur talde **bakoitza zuek izendatu heldu baten ardurapean** izanen da egun osoan
- 4/ Izenak **urriaren 2tik** (astelehena) goiti emaiten ahalko dira, **urriaren 5a arte** (osteguna).
- 5/ Izen emaitak **mailez** helarazi behar dira helbide huntara : **maider@ehlgbai.org**

Ikastetxe bateko talde bat baino gehiagorentzat izena emaitako, **bakotxarentzat fitxa bat bete** behar da eta horiek **denak batean igorri**.

Hortarako, 4. orriko izen emaita fitxa bete eta itzuli beharko diguzu tailer xedeak zehaztuz.

Horrez gain, zure ikastetxearen izena, herria eta zure izen eta deiturak zehaztu beharko dizkiguzu. **Erreski juntatzeko gisan den telefono zenbaki** bat ere ezarri beharko duzu.

- 6/ Izen emaitak orden kronologikoari jarraikiz tratatuko ditugu eta lehentasuna emanen :
  - 2022 urtean animaziorik gabe egon diren ikastetxeeri,
  - ondotik Lurramara sekulan jin ez diren ikastetxeeri,
  - eta azkenik beste galde guzietan

Izen emaita baieztatzeko, telefonoz eta gero mezu elektronikoz juntatuko zaitugu.

- 7/ Bestalde, kabalen xokoan (2. gelan) iraganen diren etxaldeko lanen erakusketak bisita librean ikusten ahalko dira egunean zehar (lekuak ez dira mugatuak). Egitarau zehatza 7. orrian ikusgai.



2023ko EDIZIOA  
Azaroaren 10a, ostirala  
Ikastetxeen eguna  
Biarritzeko Irati gelan

## IZEN EMAITE FITXA

(Fitxa bat haur taldeka)

Izena emaitako idekitze eguna : 2022ko urriaren 2a, astelehena  
Izena emaitako azken epea : 2022ko urriaren 5a, osteguna

### Zure ikastetxea

Ikastetxearen izena :

Helbide 1 :

Helbide 2 :

PK :

Herria :

### Zure taldea

– Taldearen izena :

– Haur kopurua (gehienik 15 haur) :

– Maila, adina :

– Taldearen arduradunaren izena (**talde bat = heldu bat**) :

– Telefono zenbakia (erreski juntatzeko gisan den telefono zenbakia) :

– Helbide elektronikoa :

– Lurramara heltze tenorea :

– Lurramatik abiatze tenorea :

### Xedeak

4 xede idazten ahal dituzu. Talde batek gehienik 2 tailerretan parte hartzen ahalko du.

1. xedea :

Hizkuntza :

2. xedea :

Hizkuntza :

3. xedea :

Hizkuntza :

4. xedea :

Hizkuntza :




**2023ko EDIZIOA**  
Azaroaren 10a, ostirala  
Ikastetxeen eguna  
Biarritzeko Irati gelan

## 2023ko tailerrak

>> **Tailer pedagogikoak**


### ■ DESKRIBAPENAK ■

Egiturak	Animazioen deskribapenak
<b>1 - Bil ta Garbi</b>  CE2-tik CM2-ra Euskaraz edo frantsesez (zure hautua zehaztu)	<p align="center"><b>« Hondarrik ez gehiago nere azietan ! »</b></p> <p>Haurrak talde tipian banatuak izanen dira eta tailer desberdinen bidez jatekoa behar gabe xahutzea nola sahesten ahal duten ikasiko dute !</p> <p><i>Oharra : animazio hauek Bil Ta Garbi sindikatuko lurraldean diren eskoler idekiak dira (Ipar Euskal Herria).</i></p>
<b>2 - Water Family - Du Flocon à la Vague</b>  CP-tik CM2-ra Frantsesez	<p align="center"><b>« Gure azieta, gure Euskal Herria » jokoak.</b></p> <p>Janaria, laborantza, uraren kalitatea, osasuna, ... hainbat gai jorratzen dituen jokoak, Du Flocon à la Vague, Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) eta Ikas-Bik partaidetzan asmatua.</p>
<b>3 - Harizkazuia etxaldea</b>  CP-tik CM2-ra Frantsesez	<p align="center"><b>« Eztiaren etxea ».</b></p> <p>Loreetan xurgatzea, polinizazioa, eztiaren egitea... Erlea eta erlezainaren biziaren ezagutza ludikoa. Ezti desberdinen jastatzea. Hots, zentzuen iratzarpen eder baten mentura !</p>
<b>4 - Gaia</b>  CE2-tik CM2-ra Euskaraz edo frantsesez (zure hautua zehaztu)	<p align="center"><b>« Herri kirolak : klaseen arteko inimizazio eta desafioak »</b></p> <p>Etxaldeko lanetan oinarritzen diren ohizko jokoen ezagutza. Desafioak, lagun eta eskolen artean!</p>
<b>5 - Jardinerie Lafitte</b>  CPtik CE2-ra Euskaraz edo frantsesez (zure hautua zehaztu)	<p align="center"><b>« Ereite ateliera eta landare ingurumenari sentsibilizatu »</b></p> <p>Landarearen bizi zikloa, bere beharrak, bere osaera, ... Haur bakoitxak hazi bat ereinen du eta bere ontzixka eramaiten ahalko du etxera.</p>
<b>6 - CPIE</b>  CP-tik CM2-ra Euskaraz edo frantsesez (zure hautua zehaztu)	<p align="center"><b>« Euskal Herriko harrapariak eta sarraskijaleen dantzaldia »</b></p> <p>Euskal Herriko harraparien ezagutzen ikasiko duzue izari naturaleko maketa eta argazkiekin ! Ondotik txotxongiloekin kontatutako istorio baten bidez, saien eginkizuna ulertuko duzue kabala bat mendian hiltzen delarik.</p>
<b>7 - Latsaga zalditegia</b>  CP-tik CE2-ra Euskaraz edo frantsesez (zure hautua zehaztu)	<p align="center"><b>Pottoka eta xaldi hazleak</b></p> <p>Pottoka eta xaldiekin memento bat pasatu : kabalen ezagutza egin, artatu eta gozatu!</p>
<b>8 - AAPPMA</b>  CP-tik CM2-ra Euskaraz edo frantsesez (zure hautua zehaztu)	<p align="center"><b>« Izokin eta amuarrairen bizia »</b></p> <p>Joko desberdinen bidez, haurrek Errobiko ibarraren funtzionamendua ulertuko dute eta izokin/amuarrairen bizia ezagutuko.</p>



**2023ko EDIZIOA**  
 Azaroaren 10a, ostirala  
 Ikastetxeen eguna  
 Biarritzeko Irati gelan

<p><b>9 - Sarde Sardexka</b></p> <p><i>CP-tik CM2-ra</i>  <i>Euskaraz edo frantsesez</i>  <i>(zure hautua zehaztu)</i></p>	<p style="text-align: center;"><b>« Sasoiko platera ».</b></p> <p>Sasoiko fruitu ta barazkiak ezagutu eta sasoiatik kanpo kontsumitzeak ze eragin ekonomiko duen ulertu kudeaketa/memorio joko baten bidez !</p>
<p><b>10- Les Petits Débrouillards</b></p> <p><i>CP-tik CM2-ra</i>  <i>Frantsesez</i></p>	<p style="text-align: center;"><b>« Nundik datoz aurreiritziak ? ».</b></p> <p>Gizarte-esperientzia laburren bidez, generoari lotu aurreiritzien jatorria aurkitzen eta gero horien iraultzen saiatuko gara.</p>
<p><b>11 - Terre Buissonière</b></p> <p><i>CP-tik CM2-ra</i>  <i>Frantsesez</i></p>	<p style="text-align: center;"><b>« Naturalki super-heroiak ! »</b></p> <p>Haurrek animalia desberdinen botere handia asmatu beharko dute. Ondotik, botere hori hartu eta animalia bezala egin beharko dute (hegan egin, jauzi egin...).</p>
<p><b>12 - JOKOAK</b></p> <p><i>CP-tik CM2-ra</i>  <i>Euskaraz edo frantsesez</i>  <i>(zure hautua zehaztu)</i></p>	<p style="text-align: center;"><b>Mahai jokoak</b></p> <p>Euskal Herriko artisauek diseinatu eta eginak, lekuko materialekin ekoiztu mahai jokoekin memento on baten pasatzeko parada ! Puzzle, karta joko, zaldi ttipi....</p>
<p><b>13 - Sendabelar tailerra</b></p> <p><i>CP-tik CM2-ra</i>  <i>Euskaraz</i></p>	<p style="text-align: center;"><b>« Sendabelarrak ezagutzen hasi »</b></p> <p>Tokiko sendabelarren ezagutza egin 5 zentzuak erabiliz, euskaraz hiztegia landu, gure inguruan ditugun belarrak sendabelarrak direla ulertzen saiatu. Sendatzeko, elikatzeke tindatzeko... balio dutela ikasten hasi.</p>
<p><b>14 - L'Ane ta lan</b></p> <p><i>CP-tik CE2-ra</i>  <i>Euskaraz edo frantsesez</i>  <i>(zure hautua zehaztu)</i></p>	<p style="text-align: center;"><b>« Asto ibilaldiak »</b></p> <p>Ibilaldiak kanpoan egiten direnez, aroari egokitu beharko dugu. Araberako jantziak ukan beharko dituzte haurrek (xapela ala euritako jantziekin).  <b>KASU</b> : Euri uharren kasuan ibilaldia ezeztatua izanen da.</p> <p>Kalexak <b>10 haurren lekua du</b>. Zure taldea handiagoa bada, bitan zatituko dugu. Erakasleak (edo laguntzaileak) igurikatzen duen taldearekin egon behar luke orduan.</p>



**2023ko EDIZIOA**  
 Azaroaren 10a, ostirala  
Ikastetxeen eguna  
 Biarritzeko Irati gelan

**>> Erakusketak bisita librean**

Etxaldeko kabalak eta lanak deskubritzeko 20 eta 35 minuta arteko hainbat animazio eta erakusketa izanen dira kabalen xokoan.

Publikoari idekiak dira. Zuek ere parte hartzen ahal duzue izenik eman gabe.

<b>Goizean</b>		
9:15	Ahuntz deiztea hurrekin (20 min)	frantsesez
9:45	Kofoinaren funtzionamendua (45 min)	Euskaraz / frantsesez
10:30	Artzain xakur ikusgarria (25 min)	Euskaraz / frantsesez
11:00	Ardi ile moztea	Euskaraz / frantsesez
11:30	Idi uztartze erakusketa	frantsesez
12:00	Burra egitea (15-20 min)	frantsesez
12:15	Soka animazioa, eskualde gomitatuarekin	frantsesez

<b>Arratsaldean</b>		
13:30	Artzain xakur ikusgarria (25 min)	Euskaraz / frantsesez
14:00	Ardi ile moztea	Euskaraz / frantsesez
14:30	Gasna egitea	Euskaraz / frantsesez
15:00	Pottoka deiztea	Euskaraz / frantsesez

*(KASU ! aldaketak izan daitezke egun hartan berean)*